

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2186

*EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 13koa, Merkataritzako zuzendariarena, Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea laugarren aldiz aldatzeko lege-proiektua jendaurrean jartzeko dena.*

Merkataritza Zuzendaritzak lege-proiektu bat lantzea sustatu du, Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea laugarren aldiz aldatzeko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldia-  
ren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Azaldutakoagatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea laugarren aldiz aldatzeko lege-proiektua jendaurrean jartzea, hogeitun egun baliodunetan zehar –ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera–.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, lege-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Merkataritza Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (euskadi.net).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 13a.

Merkataritzako zuzendaria,  
JON ANDONI ZARATE ZARRAGA.